

Noaua!!



Santa Ageda bezpera degu...



Hitz Aho

Usurbilen osatu den guraso elkarte berria

euskarak
behar gaitu!

æk
heldu

izan zaitez
korrika
laguntzailea

12 gutunak
12 zuzenak

www.kaniku.org



50 larkin erakunde
kulturalak
IRTET



Jakin
haizea dakiten orriak

Harpidetuz zaitez eta oparia jasoko duzu
deitu: 943 718097
Idatzi: jakin@jakingunea.com
Ikusi: www.jakingunea.com

Harpidetza: 6 zenbaki 45 euro
Oparia: 50 urteotako 202 zenbakiak DVD batean

Alkartasuna
Nekazaritza
Kooperatiba
Elkartea

**Berogailuetarako
gasoil zerbitzua**
prezio onenean



**etxez
etxeko
banaketa**

Eskaerak telefonoz 943 361 114 edo kooperatiba bertan

Alkartasuna Herriko Nekazaritza Elkartea • Nekazaritza • 1956 • 1958 • 1960 • 1962 • 1964 • 1966 • 1968 • 1970 • 1972 • 1974 • 1976 • 1978 • 1980 • 1982 • 1984 • 1986 • 1988 • 1990 • 1992 • 1994 • 1996 • 1998 • 2000 • 2002 • 2004 • 2006 • 2008 • 2010 • 2012 • 2014 • 2016 • 2018 • 2020 • 2022 • 2024 • 2026 • 2028 • 2030



Badok Amairu !!

Julen Benito: "Egindako erokeria handiena, Hernanitik gaupasaz Tolosara arrantza egitera joan ginenekoa"

Arrantzarako trebezia du Julenek. Ekaina amaieran hasi ohi da denboraldia eta gaupasek ere ez diote zaletasuna betetzea eragozten.

1. Jakirik gogokoena.

Patata tortila.

2. Ohitura txarren bat.

Lo asko egitea.

3. Zer gordetzen duzu sakelean?.

Mukizapia.

4. Zertan berpiztuko zinateke?.

Neronengan.

5. Zeri diozu beldurra?.

Gaixotasun luzei eta heriotzari.

6. Miresten duzun pertsona.

Zailtasunei edota gaixotasunei aurre egin eta gainditzeko adorea erakusten dutenak.

7. Ezin zaitezke bizi...

Lagunak eta familia gabe.

8. Egindako erokeria handiena.

San Juanetan Hernanin gaupasa egin eta zuzenean Tolosara arrantzan egitera joan ginenekoa.

9. Liburu bat.

"La Isla de los cinco faros".

10. Film bat.

"Ciudad de Dios".



11. Leku bat.

Estokolmo.

12. Herriko lekurik ederrena.

San Esteban.

13. Urtaro bat.

Udara.

Noaia!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordenberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaia.com - www.noaia.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehenakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaia.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubada, erredakzioa@noaia.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaia.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publikitatea@noaia.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manizidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai. Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubada, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORJETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazirako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

ERRAUSTE PLANTA ETA ARTZABALETAK **5. OR.**

ELURRAREN IRUDI ESANGURATSUENAK **6. OR.**

INAUTERIAK, BRASILDARREN ERRITMORA **7. OR.**

HITZ AHO GURASO ELKARTEA **8. OR.**

KORRIKA LAGUNTZAILE KANPAINA **10. OR.**

NOAUA! TXIKIN, LH 4KO IKASLEAK **14. OR.**

HERRIKO PILOTARIAK, ONENEN ARTEAN **15. OR.**



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



IDOIA TORREGARAI

Hotza

Lanera edota zita garrantzitsu batera eraman behar zaituen autobusa bezala iritsi da negua: berandu. Ia bi hilabetetako oporraldia hartu eta gero iritsi da gure bizitzara eta badirudi geratzeko asmoa duela. Donostiako hondartzak zurituta ikusi ditugu duela egun gutxiko egunkarietako portadetan, eta ETB1 eta ETB2ko albistegiek urrezko lehen hamar minutuak eskaini dizkiete errepideen egoera, urtegien maila eta termometroen beheranzko maratoiei. Isobara eta presio orgia honen artean, atentzioa albiste txiki-txiki batek erakarri dit egunkaria irakurtzen nengoela: “Etterik gabeko bat laguntza faltagatik hil dela salatu dute”.

Gertaera abenduaren hamabostean jazo zen, Donostian. Francisco Barrena 40 urteko gizona Donostia Ospitalean hil zen hotzak eragindako bihotzekoaren ondorioz, hil aurreko bi gauetan kalean lo egin ostean. Donostiako Elizbarrutiko ordezkariak Barrena aterpe batera eramaten saiatu ziren, baina ez zuten lortu. SOS Deiak, Udaltzaingoa eta Gipuzkoako Diputazioko larrialdi zerbitzuei aterpera eramateko eskatu arren, ez zuten eraman.

Hotz geratu zait gorputza lerro hauek irakurtzean. Izan ere, negua gure egutegietan ez ezik, barruan geratu zaigula dirudi.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubema - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ilka-mika !

Esandakoak eta esan gabe utzitakoak

Lehengo asteko NOAUA!n (urtarrilaren 26ko alea, 265. zenbakia), Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkateak zera zioen bere gutunean: “(...) azken egun hauetan batzuk eta besteak iritziak plazaratu dituzte Udal Batzarretan gertatutakoaz, Alkatea eta Udal Korporazioaren erabakietaz. Iritziak bai, baina informazio gutxi. Komunikabideak baditugu herrian oihartzuna dutenak eta ez ditugu informatzen ikusi. Esanez, adibidez, udal talde bakoitzak zer adierazi zuen azken Udal Batzarrean; esanez, adibidez, hitz egin nahi izan zuen herritar guztiek hitz egiteko aukera izan zutela, eta ez zutela inolako mugarik izan (...)”.

Luismari Ormaetxea Usurbilgo alkateak sinatzen duen gutunean ez du esaten bera elkarrizketatzeko proposamena egin niola bi aste lehenago, urta-

rrilaren 11n, posta elektroniko bitartez. Ez nuen erantzunik jaso. Ez baiezkorik, ez ezezkorik. Erantzun arrastorik ez. Egun horietan, telefonoz ere deitu nion; alkateak ez zuen nire telefono deirik hartu.

Bi egun beranduago, urtarrilaren 13an, Luismari Ormaetxeak sinatutako “Sobre la manifestación contra la incineradora en Usurbil” izeneko gaztelazko iritzia argitaratu zuten El Diario Vasco eta Noticias de Gipuzkoa egunkariak; biharamunean, Gara egunkariak. NOAUA!ra ez zen idatzi hori iritsi.

Egun horietan, San Markoseko mankomunitateko kudeatzaile den Iñaki Castillo elkarrizketatzeko saiakerak egin nuen. Ez zuela elkarrizketarik eskainiko, eztabaida orain politikoen artean dagoela eta politikoei galdetze-

ko iradokizuna egin zidaten era edukatua (mesfindantzan bizi zaretenok, San Markos mankomunitateko prentsa-arduradunari galdetu, ea azaltzen ari naizena egia den edo ez).

Teknikariak hitz egin nahi ez. Alkateak nire elkarrizketa-proposamenari erantzun arrastorik ez. Gauzak horrela, lehengo asteko NOAUA!n alkateak idatzitako gutunean “komunikabideak baditugu herrian baina ez ditugu informatzen ikusi” irakurtzeak, kazetari bezala, mindu egin nau.

Bukatzeke, errauste plantaren balizko kokagune berriak sortu duen arazoa alkateak iradokitzen duen kazetariari “profesionaltasun falta”rekin estali nahi izatea ez da bidezkoa inondik ere.

Imanol Ubema,
NOAUA! aldizkariko koordinatzailea.

Errauste planta Zubietan jarri nahi duela berretsi zuen astaratean Donostiako udalak

Premiazko prozedura erabiliz, Donostiako udalbatza plenoak errauste plantaren inguruko erabakia hartu zuen lehengo asteartean. Hasiera batean, gaia ez zegoen osoko bilkurako gai ordenean. Azken unean, ezustean eta premiazko prozedura erabiliz, mahai gainean jarri zuen gaia PSE-EE alderdiak. Era horretan, abenduaren 30ean udal gobernu batzordeak proposatu bezala, errauste planta Zubietako Artzabaletan ezartzea erabaki du aste honetan Donostiako udalbatzak.

PSE-EE, EAJ/PNV eta EAko hautetsiek eman zuten aukera horren aldeko botoa. PPkoek eta EB-IUkoek, aldiz, kontrako botoa eman zuten.



ZUBIETAN, USURBILDIK HURBILEN DAGOEN ALDEAN JARRI NAHI DU
ERRAUSTE PLANTA DONOSTIAKO UDALAK.

Ika-mika !

Herriak hitz egin du: Eskerrik asko denoi

Urtarrilaren 14an, Usurbilen inoiz izan den manifestazio handiaren, milaka herritar ateraginen kalera errausketaren aurka gaudela ozen adierazteko. Usurbildarrak ez ezik, inguruko herrietatik, Zizurkil, Aduna, Asteasu, Aia, Orio, Zubietan, Lasarte-Oria, Añorga eta Donostialdetik ere asko izan ziren hona hurbildu zirenak, oinez, zaldiz nahiz autoz. Lasarten duela hilabete batzuk egindakoaren ondoren jendearen erantzun ona espero bagenuen ere, guztiz arrakastatsua izan zela uste dugu eta horrela jakinarazi nahi dizuegu. Lerro hauek baliatuz, eskerrak eman nahi dizkizuegu denoi gurekin batera Usurbilgo kaleetan "Errausketarik ez, ez hemen ez inon" ozen adierazteagatik, bai usurbildarrei

eta bai inguruetako bizilagun guztiei ere.

Baina manifestazio ondorengo komunikatuan esan zen moduan, inork ez dezala pentsa mobilizazio honekin irabazi dugunik, asko irabazi arren. Garaipen txiki bat besterik ez da izan. Erraustegiaren aldekoek tinko tiratzen duten soka ez da etengo, bai ordea, zertxobait gehiago desgastatu dugu. Egun bateko froga baino denbora luzeago lasterketa baita gurea.

Honek guztiak, beraz, aurrerantzean ere gu guztion lana eskatzen du. Lan gogorra eta borondatezkoa, bakoitzaren lan orduetatik kanpo, baina bakoitzak bere ahalmenaren arabera egin beharrekoa, eta azkenean, merezik duena. Beste aldeak, berriz, hori du lanbide, nahi adina baliabiderekin

negozio borobila egin, herritarren osasuna eta nahia kontuan hartu gabe, gainera gure zergekin finantzatua.

Bukatzeke, erraustegiaren alde dagoen gure alkateak, agindua emana du errausketaren kontrako aldarrikapen guztiak ezabatu eta isilarazteko. Jakin ezazu zeuk, alkate, eta denok, isiltzen saiatu arren beti parean edukiko gaituzula saldukeria salatzeke. Guk errausketaren aurka jarraituko dugu, gure osasunarengatik, zaborrak behar bezala kudeatzearen alde, bizitzeko leku duin eta egoki batean bizi nahi dugulako eta horretarako eskubidea dugulako.

Errausketarik ez! Murritzeta eta birziklapena bai!

Usurbil Bizirik

Elurpean

Elurteak ez zuen luze iraun. Hiru egunez jarraian egin bazuen ere, ez zen oztopo handia izan. Errepide sare nagusian nabaritu zen denboralearen eragina, A-8 errepidean bereziki. Gainontzean, ez zen egoera larririk eman. Alderantziz, esango genuke. Irudi ederrak utzi zituen gure bazterretan. Hemen dituzue urtarilaren 24tik 26ra bildu genituen irudi esanguratsuenak.



KONTRAKOA DIRUDIEN ARREN, ELURTEA DINEZKOENTZAT BEHINTZAT EZ ZEN OZTOPO HANDIA IZAN.



Itziar Salsamendi

ELURTEAK ARAZOK SORTU ZITUEN A-8 ERREPIDEAN...



...BAINA EZ ZITUEN BETIKO IBILTARIAK ETXEAN UTZI.



EGUN BATETIK BESTERA IRITSI ZEN ELURRA.



Itziar Salsamendi

ELUR KOLPEAK IRUDI EDERRAK UTZI ZITUEN GURE BAZTERRETAN.



Itziar Salsamendi

USURBILGO BASERRI ETA HARAN ASKO ZURIZ JANTZITA EGON ZIREN HAINBAT EGUNEZ.

Brasildarren erritmora datoz aurtengo inauteria

Inauterietarako bi aste baino ez dira falta. Dagoeneko, mozo-
rroak prestatzen hasteko garaia da. Aurtengoa, musika eta janzkera biak bat eginda datoz Hego Ameriketatik. Inauteria mundu mailan ezagun egin zituen herrialdea gaitzat hartuta, bertako "folklore" izango da Usurbilen; mugimendua eta giro beroa. NOAUA! Kultur Elkartek antolatuta, aurtengo gaia, Brasil. Musika jartzeaz BTK enkargatuko da. Brasildar itxura hartuko dutenak herritarrek izango dira.

Brasildar ukitu handiarekin datoz aurtengo inauteria. Begi bistara joko duten bi osagarri nabarmenekin; bertakoak diren musika eta janzkerarekin. Otsailaren 16an, ostirala, Udarregiko ikasleek garai honetarako urtero prestatzen duten ikuskizuna plazaratuko dute. Hurrengo egunean, hilaren 17an, NOAUA! Kultur Elkartek antolatuta, herria jantzi koloretsuez eta doinu biziez josiko da.

Egun hori iritsi artean, ordea, presaketak aurrera doaz. Bai behintzat, Zumarte aldean. Bertan biltzen baitira astebururako BTK-koak. Dagoeneko gogor entsaiatzen dabilta. Otsailaren 17koa, BTK-koek azken hilabeteetako etenaldiaren eta errauste sistemen aurkako manifestaldiaren ondoren eskainiko duten lehen emanaldia izango da.

Lehen urtea, borobila

Taldea osatu zutenetik, urtea bete berri dute. Jaiotutako borobila zela esan daiteke. Udazkenean, Urnietan eta Zaldibian eskaini zituzten azken bi emanaldiak horren lekuko. Ordutik, igaro diren hilabeteetan, emanaldiak eten eta ekoizpen lanetan aritu dira. "Kanta berriak sortzen aritu gara", adierazi dute BTK-koek. Orain, horiek plazaratzeko garaia iritsi da. Hilaren



AURTENGO INAUTERI FESTA GIROTUKO DU BTK PERKUSIO TALDEAK.

17an, larunbata, saio bikaina eskainiko dute herriko kaleetan zehar; arratsalde partean eta baita, afalostean ere.

Iaz, estreinako urtean izan zuten harrerarekin pozik daude. Hasiera batean, batukada taldeak herritarrengan izan zuen oihartzuna, ezustekoa izan zen. "Jendea harrিতuta gelditu zen", gogoratzen dute BTK-koek. Baina lehen harriduren ostean, arrakastak definitzen du ondoen herritarrek batukadarekiko izan duten erantzuna. Horren lekuko izan ziren, herrian eskaini zituzten lehen bi emanaldiak; iazko maiatza amaierakoa eta batez ere, Santxabel jaietan izan zutena. Epe motzean lortutakoa gainera. Hain zuzen, taldea osatu eta musika instrumentuak lehen aldiz hartu zituztenetik hiru hilabetera egin baitzuten haien lehen agerraldia.

Ordutik, denbora pasa da. Etenaldiaren ostean, indarberrituta dator taldea. Entsegu saioak bertatik bertara ikusi edota Zumarte ingurutik igaro besterik ez dago. Areto barruan prestatzen aritu diren artean, dantza

erritmoa kutsakorra bada, ikuskizuna kaleratzen dutenean zer esanik ez. Aspaldian itxaroten zebiltzan zaletuek gozatu ederra hartuko dute.

Gonbita denontzat

Hilaren 17rako gonbita luzatua dute BTK-koek. "Anima daitezela, haur, gazte eta helduak moztarotuta eta dantza egitera". Gonbidapena herritar eta baita, tabernari direnentzat ere. Hain zuzen, arratsalde eta gau partean herri guneko kaleak zeharkatuko dituzte BTK taldekoek eta baita, haien atzetik doinuen erritmora dantzatzeko joan nahi dutenek ere. Taberna inguruak izango dira haien gurekue-tako batzuk. Horregatik, "tabernariei ere moztarotzera dei egiten dugu". Otsailaren 17an jai giro gogoz kalera ateratzeko deia.

Datorren otsailaren 9ko NOAUA!-ren alean, egun horri begira prestatu denaren inguruko xehetasun gehiago; ordutegiak, egitaraua...

Hitz Aho, gurasoen bilgune berria

Guraso izateko ikastarorik ez dago eta seme-alabak hezteak, ez da lan erraza. Gurasoen bizipenak eta kezkak guraso direnekin partekatu eta profesionalen aholkuak jasotzea. Hitz egiteko eta hausnarketarako gune bat sortzea. Alor horretan zegoen hutsunea bete asmoz sortu da Hitz Aho Guraso Elkarte berria.

Haur Hezkuntza, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gaiak jorratzen dituzte; hala nola, diziplina eta emozioen alorreko dagozkienak. Eta adin tarte horietako gurasoak biltzen ditu. Hitz Aho guraso elkarte berria da. “Gure ideia, gurasoak elkartu, profesionalen laguntza jaso eta gure arteko bizipenak eta kezkak partekatzea da. Ez da irtenbiderik planteatzen, bai ordea, hausnarketa bateratua egitea”, adierazi dute Hitz Aho-tik.

HITZ AHO ELKARTEA

“Hezteko ardura denona da; baina garrantzitsuena, familiari dagokiona”

Hezkuntza prozesuan parte hartu; kezkak, iritziak eta proposamenak elkar banatu; seme-alaben garapenerako baliagarriak diren ekintzak antolatzeko; beharrak identifikatu eta horiei erantzutea; eta herriko talde eta era-



IRUDIAN, GURASO ELKARTE BERRIKO PARTAIDE BATZUK. LASTER, ARAUEI ETA MUGEI BURUZKO HITZALDIA ANTOLATUKO DUTE.

kundeengana zabaltzea. Horiek dira Hitz Aho-ren helburu nagusiak. Elkartetik gogoratzen dutenez, “gure seme-alaben heziketa ikastolako irakasleek, gurasoek eta ekintza ezberdinetan dituzten monitoreek osatzen dute. Hezteko ardura denona da; baina garrantzitsuena, familiari dagokiona”.

Guraso Eskolak hasitako bideari jarraituz

Haur eskolan bada Guraso Elkartea eta lehendik ere Udarregi ikastolako Guraso Elkartea zuen. Azken horrek, egun, funtzionamenduan jarraitzen du eta gurasoentzat hainbat ikastaro antolatzen ditu. Baina ikastolarekin inolako loturarik izan gabe.

Horregatik, arlo horretan hutsune bat zegoen. Hainbat gurasoek azpimarratzen zuten elkarte hari jarraipena emateko beharra. Duela urte batzuk antzeko ekimena abian jartzeko asmoa ere izan zen. “Irakasle batzuen bidez saiakera bat egin zen. Gela bileretan proposatu zen, baina ez zen ezer ateratu”, gogoratu dute Hitz Aho-tik.

Iazko maiatzean, ikastolako zuzendaritzatik gutun batean galdetegi bat bidali zitzaion gurasoei. Bertan, lantzea interesgarria izan zitekeen gai zerrenda ageri zen. Horrekin batera, sortzekoa zen elkartearen parte hartzeko prest zeudenek izena emateko aukera zuten. Horren guztiaren emaitza izan zen urrian antolatu zuten lehen bilera.

Une honetan, hamasei guraso ingu-

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K / Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

Otar-Goxo
Elkargak

Zubiaurrenea, nº2
Tlf 943 36 55 81
20170 Usurbil

ruk osatzen dute taldea. Baina atearik zabalik ditu, haien hitzetan, “bere seme-alaben heziketan interesa daukan guraso orok; baita seme-alabak Usurbildik kanpo ikasten dituztenek ere”. Bi astean behin biltzen dira Udarregi ikastolan. Ostegunetan, 19:30etan. Ikastolako Idazkaritzaren bidez haiekin harremanetan jar daiteke. Ekitaldiak antolatzen direnetan ere, gurasoei ahalik eta erraztasun gehienak eman nahian, haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dute.

Ekitaldiak antolatzeko mugak dituzte, oraindik diru-laguntzarik ez baitute jaso. “Laguntza jasota, programaketa bat egin eta ekitaldien maiztasun bat finkatuko dugu”, iragarri dute Hitz Aho-koek.

HITZ AHO ELKARTEA

“Gure helburuetako bat seme-alabekiko harremana hobetzea da, horretarako garrantzitsua da formazioa”

**Arauei eta mugei
buruzko hitzaldia, laster**

“Gure helburuetako bat, seme-alabekiko harremana hobetzea da. Horretarako formazioa oso garrantzitsua da”, adierazi dute guraso elkartetik. Asmo horrekin abenduan antolatu zuten lehen hitzaldia. Joxe Amiama

psikopedagogo gonbidatu zuten joko eta jostailuei buruz hitz egiteko. Izandako harrerarekin gustura, bigarren bat antolatzeko prest dira.

Arauekin eta mugekin seme-alabak nola hezi izango da mahai gaineratuko duten gaia. Gurasoei ez baitzaie erraza seme-alabei ez esatea, mugak jartzea eta horiek beharrezkoak direla ulertaraztea. Naiara Arriola eta Silbia Caballero psikologoek parte hartuko dute. Biak Hitz Ahon biltzen diren gurasoekin lan egitera eskaini dira; horregatik, elkartetik bien lana eskertu nahi dute. Gerora talde txikitan bilduta hitz egiteko gune batzuk sortu nahi dituzte.

ARITZ GORRITI

Igande honetan, Santa Ageda bezpera

Otsailak 4. Santa Agedako koplak berritzeko eguna. Igandean tokatu da aurten. Hori dela eta, Udarregiko ikasleak ez dira kantari aterako. Bota Punttubakoak eguerdian aterako dira kantari. Tabernaz taberna ibiliko dira kaxkoan. Zubietan, ordea, arratsaldean ekingo diote kantuari.

Igandez egokitu denez, Udarregi ikastolako ikasleak, aurten, ez dira kantari aterako.

Bota Punttuba bertso eskolako kideak, ordea, eguerdi partean aterako dira. 12:00etan, frontoi atzean jarri dute hitzordua. Santa Agedako koplak abesteaz aparte, bertsoren bat edo beste ere kantatuko dute. Herriko kaxkoa alaitu eta

gero, sagardotegi batean egingo dute bazkaria. Norbaitek bazkarira joan nahiko balu, honako telefonoz zenbakira dei dezala igandea baino lehen: 658 728 018 (Kerman).

Zubietan, arratsaldean

Zubietan ere izango da koplak doinurik. Azken bi ostiraletan entseatzen aritu dira Eskola Txikian. Ostiral honetan, azken entsegua egingo dute. Beraz, orain arte azaldu ez eta kantari irteteko gogoz direnak garaiz dabilta oraindik. Ostiral honetako entsegua ere Eskola Txikian egingo dute, arratsaldeko 19:00etan. Kantari ordea igandean aterako dira, arratsaldeko 18:00etatik aurrera.

IMANOL UBEDA



ZUBIETAN ARRATSALDEAN HASIKO DIRA KANTUAN.

Usurbilen eguerdian, Zubietan arratsaldean

Usurbilen

Otsailak 4, igandea.
12:00etan frontoi atzean.
Ibilbidea: Usurbilen, tabernaz taberna.

Oharra: sagardotegi batean bazkaltzeko aukera. Izen-emaitea: 658728018 (Kerman).

Zubietan

Otsailak 4, igandea.
18:00etatik aurrera.
Ibilbidea: Zubietan barrera.

Oharra: Azken entsegua otsailaren 2an ostirala, Eskola Txikian, arratsaldeko 19:00etan.

Korrika 15-ek laguntzaileak behar ditu

Badator... Korrika. Martxoaren 22tik apirilaren 1era, Euskal Herria alde zeharkatuko duen euskararen aldeko ibilaldia Karrantzan hasi eta Iruñean amaituko da. Baina laguntza beharrean da. Horregatik, AEK-k abian du "Korrika Laguntzailea" ekimena.

Heldu. Euskal Herriko txoko guztietara hedatuko den leloa izango da. Korrika 15 laster hemen da eta. Martxoaren 22tik apirilaren 1era arte, Karrantzatik Iruñara Euskal Herri osoa zeharkatuko du. Euskararen aldeko 2.150 kilometrotako ibilaldia eta horren atariko ekitaldiak prestatze lanetan dabilta antolatzaileak. Edizio honetan, euskal emakumea omenduko da. Urteetako menderakuntza, jazartze eta zigorre aurre egin eta belaunaldiz belaunaldi euskal kultura eta euskara gorde eta transmititzeko izandako indar, adore eta balioagatik.

Baina laguntza beharrean dira. Edizio honetan, bereziki Nafarroako gau-eskola eta euskaltegiek bizi duten egoera ekonomiko tamalgarriari aurre egin nahi diote. Hori dela eta, ekimena bultzatzeko AEK-k "Korrika laguntzaile" egiteko kanpaina abian jarri du.

"Korrika laguntzaile"

Horretarako, Etumeta euskaltegira edota Korrika laguntzaile bereizgarria ikusten den lekuetara jo besterik ez dago. Bertan, laguntzaile izateko beharrezko dokumentazioa jaso daiteke. 12 euro kostatzen da eta txartela eta laguntzaile pin-a etxean jaso daitezke. Horrez gain, ekimenari laguntza eskaintzearen truke, Euskal Herriko 300 saltoki baino gehiagotan beherape-nak izateko aukera dago.

Laguntzaile izateko beste modua, sareak eskaintzen duena. Korrikak duen web gunea bisitatuz gero (www.korrika.org), "Korrika Laguntzailean" dagoen datu pertsonalen eskabide orria bete eta bidalita, handik gutxira antolatzaileak lagun-



IGARO DEN ASTEAN AURKEZTU ZEN KORRIKA 15. "HELDU" LEMAPEAN, EUSKAL EMAKUMEA OMENDUKO DA.

tzailea izan nahi duenarekin harremanetan jarriko dira. Korrika 13. ediziora ailegatu zenetik, dagoeneko hirugarrenez abian jarri den elkartasun ekimena dugu.

KORRIKA BADATOR

"Korrika martxoaren 24an
larunbata pasako da
Usurbildik. Iluntze partean"

Bestalde, Korrikaren izenean Euskadiko Kutxan kontu korrante bat zabaldu da; 30350072 02 0720 005710. Horrekin batera, ekimenarekin loturiko materiala eta oroigarriak erosteko aukera izango da.

Aurtengo leloa "heldu" hitzak beteko du. Baina hitz horrekin batera zeri heldu nahi dioten argitzen dute antolatzaileak. Hitzari; euskara Euskal Herri osoko hizkuntza izateko konpromisoari. Lekukoari; iraganeko lanaren fruitua jasotakoek lekukoa har dezaten. Elkarlanari; euskaltzaleen arteko lanari. Euskarari; ikasi, erabili eta euskaraz bizitzeko bideak eraikitzeari. Eta azkenik, herriari; euskaraz mintzatuta euskaldun izaera adierazteari.

ARITZ GORRITI

Korrika baino lehen, Korrika Kulturala

Martxoaren 24an Gipuzkoa osoa zeharkatuko du Korrika 15ek. Debagoienatik sartu eta hurrengo goizean, Elgeta aldetik Bizkaia aldera abiatuko da. Donostia aldetik Lasarte-Oriara 19:30ak aldera ailegatzea aurreikusia dago. Oriara, aldiz, 21:30ak ingururako. Usurbilera egun horretako iluntzean helduko da Korrika 15. Larunbata egokitu da aurtent.

Karidadeko Benta, martxoan Sutegin

Baina lasterketa hasi baino lehen, Korrika Kulturalari ekingo zaio. Otsailaren 1etik martxoaren 23ra arte makina bat kultur ekitaldiz gozatzeko aukera dago. Tartean, Usurbilen Karidadeko Benta musika taldeak eskainiko duen emanaldiaz. Sutegin, martxoaren 9an gaueko 21:00tan. Zumaiarrek "San Quirico", Italiako herri txiki bat omentzen duen lana aurkeztuko dute. Hamaika abestietan, bertsolariaren ikuspegitik jasotako bertso alai, ironiko eta pertsonalak tartekatzen dira.

Zerbitzu osagarri berria

Etumeta-AEK euskaltegiko ikasleentzat

Euskara ikasteko ekimen berria martxan jarri du Usurbilgo Etumeta-AEK euskaltegiak. Ohiko klaseez gain, ikasle bakoitzak asteen bi ordutan mintzamena eta gramatika saio bana jaso dezake. Zerbitzu osagarria deitutako ekimen berria, lehen aldiz proba gisa jarri zuten abian urtarilaren 8an. Momentuz, ikasturte amaierara arte luzatuko da.

Usurbilgo Etumeta-AEK euskaltegi-ko ikasleek euskararen trebatzeko aukera berri bat dute; “Zerbitzu Osagarria” delakoa. Goi eta behe mailan euskara ikasten ari diren ikasleek ordubeteko iraupena duten mintzamen eta gramatika saioetan parte har dezakete. “Ikasleek azterketak dituztelako, gurasoek hurrekin egon beharra dutelako, edota txandaka lan egiten dutenek, klase askotara etortzerik ez baitute”, adierazi du Etumeta-AEK euskaltegiko arduradun Olatz Urdanpilletak.

Zerbitzu osagarria lan ordutegiagatik euskara klaseetara joan ezinik dabiltzanei zuzendua dago. Baita, ikasten ari direnen ataletako bat gehiago lantzeko beharra ikusten dutenei ere. Hala, ahal bezainbat erraztasun eman nahi zaizkie ikasleei; tartean, etxetik gertu behar beste eskaintza izatea. Urdanpilletak gogoratzen duenez, “asko euskara ikastera herritik kanpora baitoaz”.

Klase bakoitzean biltzen diren ikasleek helburu ezberdinak dituzte. Irakasle batekin, eta norbere bizilekutik gertu, ikasle bakoitzak euskararen alorrean dituzten zalantzak edota trabak gainditzeko laguntza jasoko dute.

Ahokotasuna

eta ikasketa atalak sakonago

Mintzamen saioak ahozko hizkuntza hobetzen lagunduko die. “Librea izango da”, adierazi du Usurbilgo Etumeta-AEK euskaltegiko arduradunak. Gairen bat aldeztu aurretik proposatu, prestatu eta horri buruz hitz egitea adibidez. Gramatikari eskainitako ordubeteko



“ZERBITZU OSAGARRIA” EKIMEN BERRIAREN BIDEZ, MINTZAMENA ETA GRAMATIKA GAIAK LANDUKO DIRA.

ikastorduan, klase garaian sortutako zalantza eta azalpenak argitzeko tartea izango da. “Ikasleek behar dutenarekin lotuagoa egongo da”, zehaztu du Urdanpilletak. Ikasketako atalen bat sakonago landu ahal izango dute.

Izena eman nahi duenak aldeztu aurretik irakasleari jakinarazi behar dio, Urdanpilletaren hitzetan, “irakasleak behar beste material prestatzeko denbora izan dezan”.

Euskaltegitik ekimena probatzera dei egiten dute. “Giro oso ona dago. Ahalegina egin behar da, baina ondo pasatuta ikasi daiteke. Ia bizia ematen diogun euskarari eta euskaltegiari”, adierazi du Urdanpilletak. Klaseez gain, afariak edota tailerrak antolatzen dituzte. Iaz, adibidez, aromaterapia saioa antolatu zuten. Aurrerantzean ere, tailerrak antolatzeari eutsi nahi liokete.

Eguberrietako oporren ostean, froga moduan lehen aldiz abian jarri zuten ekimena ikasturte amaierara arte luzatuko da. Hortik aurrera, zerbitzu berriarekin jarraitu edo bertan behera uzteko, “balorazioa egingo dugu”, adierazi du euskaltegiko arduradunak. Balorazio horren barne geldituko da Udalaren aldetik jaso dezaketen laguntza. “Oraindik ere aurrekontuak onartzeko zain gaude. Ez dakigu, euskaltegitik

bideratutako ekimenak Udalak benetan bere gain hartuko dituen”, adierazi du Urdanpilletak.

Mintzamena eta gramatika saioak

Ordutegia

GOI MAILA

Ostirala

15:00-16:00 Gramatika saioa.

16:00-17:00 Mintza saioa.

BEHE MAILA

Asteartea

19:00-20:00 Gramatika saioa.

Osteguna

19:00-20:00 Mintza saioa.

Matrikulazioa zabalik

Zerbitzu Osagarria jada buru-belarri euskara ikasten dabiltzanentzat abian jarri da. Baina baita datozen asteetan, euskaltegira lehen aldiz hurbildu daitezkeenentzat ere; hau da, ikasle berrientzat. Iraila amaieran zabaldu zen matrikulazio kanpaina eta urrian hasi zen ikasturte berria. Baina Etumeta-AEK-n izena emateko epeak zabalik jarraitzen du. Informazio gehiago, 943 372 001 telefono zenbakian edota Nagusia 43 behean, Zumarte ondoan.

KzGunea, otsailean goizez

KzGunea, otsailean, goizez zabalik izango da. Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00era. Hainbat ikastaro, mintegi eta azterketa egingo dira hilabete honetan. Hemen duzue, laburbildurik otsaileko egutegia.

KzGunea ikastaroak

Iraupena: 20 ordu

Lanbide Hastapena (sukaldariak)

Otsailak 5 / otsailak 9

Ordutegia: 9:00-11:00

Lanbide Hastapena (ile-apaintzaileak)

Otsailak 12 / otsailak 16

